

Hautaketa-prozesua 2022ko lehen sei hilekoaren amaieran amaituko da

Kutxabankek 60tik gora profesional kontratatuko ditu Euskadin

- **Hasiera batean, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako txikizkako sareetan sartuko dira, arreta pertsonalizatuko zerbitzuak eta unitate espezializatuak indartzeko**
- **Zuzenbideko, ADEko, Ekonomia Zientzietako, Ingeniaritzako eta matematikako graduak izango dituzte**

2022ko martxoaren 29an. Kutxabankek **60tik gora profesional** hautatzeko prozesua jarri du abian, Ekainean prozesua amaitzean kontratatuzeko asmoarekin.

Banku-sektoreak hartu berri dituen erabakien ildotik, Kutxabankek konpromisoa du bezeroei ematen dien arreta pertsonala sendotzen jarraitzeko, batez ere adinekoei, banku-zerbitzuek ekonomia inklusibo baterantz aurrera egin dezaten.

Kontratazio berrien helburua **arreta pertsonalizatuko zerbitzua** eta unitate espezializatuak **indartzea** izango da. Gainera, langile berri guztiek aukera argia izango dute finantza-erakundeetan aurrera egin eta beren ibilbide-profesionalean hazteko.

Kontratazio berrien % 100 **Euskadiko bulegoen sarean** hasiko da beharrez, eta kontratatu berrien zati handi batek jadanik nolabaiteko lotura izan du Bankuarekin.

Azken bost urteotan, Kutxabankek **350 profesional** baino gehiago mugagabe kontratatu ditu, talentua erakartzeko prozesu zabal batean. Helburua bezeroei arreta emateko sareak eta Erakundearen funtsezko arlo espezializatu jakin batzuk indartzea izan da.

Profesional berriek asmo handiko prestakuntza-plan bati ekin ahal izango diote, eta lanbide-karrera bat garatu ahal izango dute enpresa lider batean. Kutxabank Taldeak 5.500dik gora langile ditu gaur egun, Bankuaren zerbitzu espezializatuak aintzat hartuta.